

ZALLAAREN ALDE



ENPLEGU MAHAIA

Aurrekontuen lehen zirriborroa aurkeztu zenetik, EAJ/PNVk hainbat ekimen proposatu zituen udalerrian enplegua sustatzeko. Une horretatik aurrera, Enplegu Mahaia deitu zen. Horixe da gure herritarren kezkarik nagusiena, eta udal korporazioarena ere izan beharko luke. Horregatik, enplegu mahaia martxan jartzea babesten dugu, zeinetan parte hartzen dugun eta non ekimen interesgarriak aurkezteko ahalegina egingo dugun.

EAJk ZALLAKO ENPRESEN ALDEKO APUSTUA EGIN DU

KEZKAGARRIA DA UDALEKO LANETAN GURE HERRIKO ENPRESAK EZ IKUSTEA


Maiatzaren 28an EAJ-PNVren Udal Taldeak gobernu taldeari eskatu zion bere irizpideak malgutzera udaleko lehiaketa publikoak enkantean jartzerako orduan, gure herriko enpresek lehiaketa hauetan parte hartzerik izan dezaten.

Aldi berean, udal gobernu taldeak esleipenak egiteko modu eta helburuak ezagutzera emateko azalpena eman zuen.

EAJ-PNVren aldetik ados gaude prozedura horiek planteatzeko orduan ezartzen diren helburu eta izpirituarekin, baina gure ustetan ez dira betetzen gobernu taldeak ezarritako helburu horiek.

Lehen helburua: "gure herrian aberastasuna sortzen laguntzea, Zallako enpresak eta profesionalak kontratatuz". Hau ez da adierazten diren kasuetan betetzen, hiru kasu hauetan lanak ez zaizkielako herriko enpresei eman.

EAJren ustetan arazoa ez da esleipena, lehiaketa publikoan eskaintzarik onena eman behar zaiolako, baizik eta udalerriko enpresa batzuek lizitazioetan parte hartzeko aukerarik ez dutela.



Aipatu ziren hiru lehiaketatartik bitan, bertako enpresei egin zaizkien eskaintzen artetik, bakarra baino ezin izan da erantzun, gainerakoetan enpresek ulertu dute ezinezko zutela lizitazioetan parte hartzea.

Gure ustetan, baldintza pleguetan herriko enpresei lizitazioetan parte hartzen lagundu behar zaie, baina lehiaketaren baldintzak aldatu gabe.

• Bigarren helburua: "preziorik txikiena lortzea, denon dirua delako". Aipatutako kasu bietan, hurrenez hurren daude eskaintza bat eta bi eskaintza. Gure ustez, hori ez da nahikoa aukeratu den eskaintza onena izango dela jakiteko. Bi eskaintza daudenean zaila da jakiten, baina bakarra dagoen kasuan, ezinezkoa.

• Hirugarren helburua da "ahal dugun kalitate onena lortzea". Puntu honetan gertatzen da aurrekoan gertatzen den gauza bera, aukeratzeko konparatzerik ez dagoelako, eskaintza urria delako.

Hurrengo lizitazioei begira, baldintza pleguak egiteko orduan, udalerriko enpresek udaleko lehiaketetan gure herritik kanpoko enprekin berdintasun egoeran parte hartzeko aukera izatea eskatzen dugu, eta enpresa kopuru gutxienekoa bermatzea eskatzen dugu, udalerrientzat baldintzarik onenak lortu ahal izateko.

ZALLAKO UDALAREN ZENBAKI GORRIAK 2012KO EKITALDIAN

ZALLAKO UDALAK 1.351.260,05€KO (225 MILIOI PEZETA) SALDO NEGATIBOA AURKEZTU DU 2012KO AURREKONTUKO EMAITZETAN

Iragan martxoaren 27an, Javier Portillo alkateak aurkeztu duen 2012ko aurrekontuko likidazioa. Hartan, **1.351.260,05€ko SALDO NEGATIBOA** aurkeztu zuen (225 milioi pezeta inguru) 2012ko aurrekontuko emaitzetan.

Desdoikuntza honen zati handia kutzako soberakinarekin konpentsatu da (aurreko legegintzaldietan aurreztu zen dirua).

Desoreka handia eragin da, egitasmo finantzarioa egitea exijituko lukeen egonkortasun helburua bete ez delarik.

Aurrekontuak kudeatzeko praktika hau denboran luzatzen bada, Zallako Udalean finantza arazo larriak eragin litzake.

Zallak kutzako soberakina erabili behar izan du 2012ko kontuak orekatzeko. Araua aldatu behar du 2013ko inbertsioetan eragin kaltegarria izan dezaketen egitasmo finantzarioa saihesteko

ZALLAKO EAJ/PNVK UDALARI ESKATU DIO GURE HERRITARREN OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO JARDUNAK MARTXAN JARTZEA

ZALLAN BEHAR-BEHARREZKO ELIKAGAI ETA PRODUKTUAK BATZEA PROPOSATZEN DUGU

Gure herrian, pairatzen ari garen langabezi gogorraren eraginez, egoera txarrean dauden familiei laguntzeko asmoa da.

Elikagaien Bankuak Enkarterrietako Mankomunitatearen bidez garatzen duen lanaren osagarria izango litzateke.

Ekimena proposatuko dugu urtean behin edo bitan egiteko, egiazko beharrezanaren arabera, langabezi tasa eta gizarte bazterketa arriskuan dauden famili kopurua behar arte.



ZESTERO PLAZA:

Zallako EAJ-PNVk Udalarekin izenpetu du Batzokia dagoen tokia Udalari lagatzeko hitzarmena. Maristetan egingo diren jardueretan integratuko da eta herritar guztiek zerbitzura egongo da, orain arte egin den moduan.



ZALLAKO EAJ/PNVK GOBERNU TALDEARI ESKATU DIOGU... / EAJ/PNV DE ZALLA SOLICITA AL EQUIPO DE GOBIERNO QUE ACTÚE

USOAK:

Usoek Aranguren aldean sortarazi dituzten osasun arazoa konpontzea eskatzen dugu.

PALOMAS:

Solicitamos que se dé solución al problema de salubridad generado por palomas en Aranguren.



EZTROPOZUAK ...

Hainbat dira Udaletxeko parkeko pasabideetan erori diren ume eta nagusiak, lurzorua egoera txarrean dagoelako.

TROPEZONES ...

Varios niños y personas de avanzada edad se han caído en los pasos del parque del Ayuntamiento porque el firme se halla en mal estado.

IGOGAILUA ARRISKUTAN...

Bilbo-Santander trenbideko geltokiko igogailua "botellón" egiteko, jolasteko eta txirringekin igotzeko plataforma gisara erabiltzen da.

ASCENSOR EN PELIGRO...

El ascensor del apeadero de la línea Bilbao-Santander se utiliza para hacer "botellón", como juego en sí mismo y como plataforma para subir con bicicletas.

SAN JUAN AUZOKO TRENBIDE PASABIDEA HOBETZEA: Udalari eskatzen diogu San Juan Auzoa eta Langileen Etorbidea lotzen dituen trenbide pasabidea konpontzea eta sarbide egokiagoak jartzea. Arazo nagusien artean, lurzorua oso egoera txarrean dago eta oso konplikatu da gurgildun aulkiekin (gaigabetuak eta umeak) igarotzea.

MEJORA DEL PASO A NIVEL DEL BARRIO SAN JUAN: Solicitamos al Ayuntamiento que gestione el acondicionamiento y mejora de accesibilidad del paso a nivel que comunica el Barrio San Juan y Av. de los Trabajadores, ya que, entre otras carencias, el firme se encuentra en mal estado y el paso para minusválidos y coches de niños es muy complicado.

SAREA...

Pilotalekuko atzealdeko ormako sarea kentzea eskatzen dugu, egoera txarrean dagoelako. Horren ordez, belar igokariak jartzea eskatzen dugu.

LA MALLA...

Solicitamos la retirada de la malla que cubre el muro de contención en la zona trasera del frontón por el mal estado de conservación en que se encuentra y su sustitución por plantas enredaderas.

ARANGOITIKO BIDEA:

Arangoitik Gueñesera doan bidea aldatzea eskatzen dugu istripuak saihesteko: Udalak oinezkoentzat eta ibilgailuentzat BI-636 errepide zati honetan dagoen arrisku egoera konpondu behar du.

PASO DE ARANGOITI:

Pedimos que el tránsito de peatones de Arangoiti a Güeñes se cambie a través del barrio para evitar accidentes. El Ayuntamiento debe buscar una solución al peligro existente para los peatones y vehículos en ese tramo de carretera BI-636.

BERTOKO ZUHAITZAK...

Bertako zuhaitz eta arbolak landatzea eskatzen dugu.

ÁRBOLES AUTÓCTONOS...

Solicitamos la plantación de árboles frutales silvestres y/o autóctonos.

Konekta Zaituz
<http://www.facebook.com/ZallakoEajPnv>
<http://zalla.eaj-pnv.eu>
zallakoeajpnv@gmail.com
móvil: 644254665